

MARKINA-XEMEIN / Berba idatziak zikloko lau ekitaldi egongo dira asteburuan

NAGORE GOIEASKOETXEA

Markinako Herri Bibliotekak, guraso elkarteak, arte eskolak eta Uhagon kultur elkarteak, antolatutako Berba Idatziak 2006zikloaren barruko ekintzak egongo dira asteburuan. Guztiak doan izango dira. Bihar 22:30ean Uhagon kulturgunean Erloju lehorrak izeneko poesia, musika eta pintura ikuskizuna egongo da Mikelazulo kultur elkartearen eskutik. Hari nagusiak bere bizitzan krisian egonda parentesi baten barruan bizitzea erabaki duen pertsonaren istorioa kontatzen du. Parentesitik parentesira egoera desberdinetan dauden pertsonaien bizitzetan sartu eta denboran zehar bidaia egingo du pertsonaiak. Ikuskizun horretan bizitzan nahita edo nahi barik denbora gelditzeko egiten ditugun saioen berri ematen da, bizitza guztiz pasa baino lehen une bakoitzaren jabe izan nahian nolabait, azaltzen dute Mikelazulo Kultur Elkartekoek. Horretarako, poesia eta kontakizun txikietaz baliatuta, pertsonaien ahotik bizipenik xumeenak gorde dezaketen poetikotasuna kontatuko dute umoreari uko egin barik. Bestalde, ikuskizuna amaituta, Bizkaiko hiru kidek osatzen duten Arean taldea entzuteko aukera egongo da. Iñaki Garrido Galdakaako baxujoleak, Koldo de Miguel Basauriko bateriak eta Arteako Borja Estankona ahotsoa eta kitarrak Higakorra izeneko bigarren diskoa aurkeztuko dute. Munduko ipuin kontalariak Rock taldeak euren ikuspegi berezia erakusten du disko berrian. Bederatzi abestiz osatutako lana da, eta tentsioa, lotura eta sonoritate konkretu baten bilatzearen alde lan egin du taldeak. Abesti sendo, irmo eta gorpuztuak dira. Etzi, oster, nagusientzako ipuin kontaketa egongo dira 22:30ean Herri Bibliotekan. Markina-Xemein Munduko Kontu Kontalarien jaialdiaren barruko herrietako bat da, eta bertan izango dira Txaro Pita eta Koldo Amestoi Asturias eta Euskal Herriko ipuin kontalariak. Charo Pitak Amores imaginarios y otras formulas de encuentamiento izeneko istorioa kontatuko du, eta Koldo Amestoi Harriola marriola ipuin eta mitoetan oinarritutako kontakizuna. Liburu Egunari lotuta, azken urteetan beti ekarri da idazleren bat, eta aurten Edorta Jimenezek Markina-Xemein eta inguruko pilotariak Hemingwayrekin eta Cubagaz edukitako harremanaz berba egingo du San Fermingway eta Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan liburuetan oinarrituta. Markina-Xemein eta inguruetan pilotarako zaletasun eta ohitura handia egon da betidanik. Pilotaren mundua hurbiletik bizi izan da, eta bizi da. Hori dela eta, gonbidatu genuen Edorta Jimenez gaiaren inguruan berba egitera, azaldu dute antolatzailerek. Inguruko hainbat pilotari ere gonbidatu dituzte 12:30ean Uhagonen izango den berbaldira, eta 50 liburu banatu dira herritarren artean.